

EUSKERAREN BERBAKERAK

Iru berba-egikera dauz euskereak, bata berba egiten asten diranean seintxueri egiten dautsaguena: Papa = ogia. Mama = ura. Koko = txokolatea. Txatxa = igalia. Nan-nan = jan. Apax = jesarri. Andi-andi = ibilli. Tente = zutunik. Apapa = umezaiña. Paunba = jausi. Pitxia = soiñekoa. Txitxia = okelea. Pu-pu = min-egin. Txantxurtxuak = agintxuak. Obaba = ogea. Lolo = lo. Nene – esnea. Eta, abar.

Bestea, Itanozkera. Gut *dok eta eztok* deritxagu. Irugarrena, *Zuka* egiten doguna. Oraingo ama gazteak, geienak behintzat, umetxueri berbetan irakasten asten diranean egiten jaken euskera polit au ez dakie: Amamak geienak bai. Ba-dira batzuk, au euskera dotore au barik, umeeri lenengotik bear dan lez itz egiten irakatsi bear dakiela uste dabenak: baiña, nire ustez, iraun bearrekoa da gure izkuntzearen alderdi jator au, berbetearen aberastasuna ta betegarria dogu-ta.

Itanozkerea be, galduten doakigu; leenago asko erabilten zan eta gure aldikoak ondo ikasi genduan. Orain be, erri batzuetan erabilten dabe. Gure erriko gazteak ez dakie izkera au, ondo ez gitxiagorik be; *Zeu-gaz* nastetan dabe. Tamalgarria genduke, ba, izkera erriko au suntsitutea. Berbakera onek, erderak lez, gizonen eta emakumeen alderdia daukaz: *Etorri adi* gizonak eta *etorri adin* edo *etorri adiña* emakumeak. *Joan adi* gizonak eta *joan adiña* edo *joan adin* emakumeak. *Jausiko az*

gizonak eta *jausiko azana* edo *jausiko azan* emakumeak eta abar.

Eta azkenez, *Zuka* itz egitea. Erderazko *usted*-en erakoa da-la esango neuke; zeozer zabalagoa bear ba-da: *Zuka* itz egitea lotsazkoa ta argia dogu eta era guztietako notiñekaz, personakaz, itz egitekoa. Gitxi batzuk ba-dira, *Zu* edo *zeu* barik *Berori* erabilli daroenak, izakera andikoentzat. Au, berbakera au, itsusia dogu: Alperreko izkerea; izkuntza jatorretik baztertu bearrekoa.

Gogaikarri izan ez nakizuen, urrengorarte.

Aurre-Apr aiz.